

Udalerrietan haur eta nerabeek parte hartzeko organo egonkorak diseinatzeko eta abian jartzeko gida



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Aurkibidea

AURKEZPENA.....	3
ZER DA HAUR ETA NERABEEN PARTE HARTZEA?.....	4
Parte hartzea eskubide gisa	4
Parte hartzeari buruzko teoriak	6
Parte-hartzearen garrantzia.....	8
Parte-hartzearen aurreko beharrezko baldintzak.....	10
Eragile gakoak	12
Parte-hartzea bideratzeko moduak	14
NOLA DISEINATU ETA JAR DAITEKE ABIAN HAUR ETA NERABEEK PARTE HARTZEKO ORGANOA?	16
Diseinatzeko prozesua hasi aurretik aintzat hartzeko puntu batzuk.....	16
Haur eta nerabeek parte hartzeko organoa diseinatzeko eta abian jartzeko prozesuaren faseak.....	18
1. fasea. Erakundeen konpromisoa, diagnostikoa eta talde eragilea sortzea	18
2. fasea. Organo parte-hartzailearen diseinua	23
3. fasea. HNPO abian jartzea.....	29
4. fasea. Jarraipena eta ebaluazioa	31
EAE-KO PARTE-HARTZEAREN EKOSISTEMAK	38
Haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko sareak edo programak.....	38
EAEko esperientzia interesgarriak	41
EAE kanpoko esperientzia interesgarriak	44
TRESNEN KUTXA.....	46
Gidak eta baliabideak.....	46
Erreferentziazko legedia	47
Haur eta nerabeek parte hartzeko organoa abian jartzeko tresnak.....	49
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	54

AURKEZPENA

Eskuartean duzun gida hau Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) 18 udalerrirekin egindako lanetik ateratako ikasketen sistematizazioaren fruitua da. Hauek dira udalerrri horiek: Agurain, Amurrio, Ataun, Barakaldo, Bergara, Donostia, Durango, Eibar, Gordexola, Gorliz, Laguardia, Laudio, Legutio, Lemoa, Portugalete, Urretxu, Zaldibia eta Zumaia. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saileko Familia eta Haurren Zuzendaritzak udal-erakundeetan haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko sortu duen Proiektu Pilotuan parte hartu dute.

Dokumentu honen xedea haur eta nerabeek parte hartzeko organo egonkorrak martxan jartzea erabakitzen duten erakundeentzako tresna erabilgarri eta praktikoa izatea da.

Hauek dira gidaren helburu nagusiak:

- Udalerrian haur eta nerabeek parte hartzeko prozesuen garapena sustatu eta erraztea.
- Oro har, parte-hartzearen kontzeptura hurbiltzea eskubideen ikuspegitik, eta, zehazki, haur eta nerabeen parte-hartzera.
- Haur eta/edo nerabeek parte hartzeko organoa diseinatzeko lan-metodologia proposatzea.
- Haur eta nerabeek parte hartzeko proposamenak sustatzea, haur eta nerabeen errealitatera egokituta eta helduen parte-hartze ereduak errepikatu gabe.
- Jarraibide eta tresna praktikoak eskaintzea, esperientzian oinarrituta eta errealitate desberdinetara egokituta.

ZER DA HAUR ETA NERABEEN PARTE HARTZEA?

Parte hartzea eskubide gisa

Haurren parte-hartzeko eskubidea 1989an onartu eta 1990ean indarrean sartu zen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak (HEH) jasotzen dituen oinarritzko lau printzipioetako bat da. Hauek dira beste hirurak: diskriminaziorik eza; haurren interes gorena; eta bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea.

Zehatzago, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 12. artikulua arabera, haurrek eta nerabeek haien iritzia propioa osatzeko baldintzak izatea bermatu behar dute erakunde publikoek. Era berean, haiei eragiten dieten egoeren gaineko iritzia modu librean adierazteko eskubidea ere bermatu behar dute, eta haien iritzia kontuan izan behar dituzte adinaren eta heldutasun mailaren arabera.

Gainera, eskubide hori aipatzen dute 13. (adierazpen-askatasunerako eskubidea), 15. (elkartzeko askatasuna izateko eskubidea) eta 17. artikuluek (informazio egokia eskuratzeko eskubidea).

Hurtzaroari eta eskubideen ikuspegiari buruz hitz egitean, eta desberdintasun ugari dituen gizartean bizi garen ideiatik abiatuta, beharrezkoa da hauei buruz ere hitz egitea: aniztasunarekiko errespetua, diskriminaziorik eza (HEHren 2. artikulua) eta haur eta nerabe guztien aukera-berdintasuna (HEHren 6. artikulua), jatorri etnikoa, arraza, erlijioa, belaunaldia eta egoera ekonomikoa edozein izanik ere haien eskubideak sustatuz eta bermatuz.

Horretarako, gaitasunak eta erantzukizunak eskuratzeko esperientziak sustatu eta demokratizatu behar dira, hala nola haur eta nerabeen parte hartzea, haurrak eta nerabeak heldu parte-hartzaileak izan daitezen eta komunitatearekin edo bizi diren gizartearekin ardurak izan ditzaten.

Haurren eta nerabeen parte-hartzeko eskubidea hauek osatzen dute, besteak beste:

- Eragiten dieten gaien gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, kantitate eta kalitate egokikoa.
- Ideiak sortzeko eta adierazteko eskubidea eta kezkarriak edo interesgarriak iruditzen zaizkien gaien gaineko iritzia ematekoa, baita prestakuntza edo adierazpen horretan helduek botere edo eraginik ez izateko eskubidea ere.
- Besteek haiek emandako iritzia entzuteko eta errespetatzeko eskubidea. Horretarako, helduek behar den denbora eta espazioak eskaini beharko dituzte.
- Haur eta nerabeek emandako iritzia kontuan hartzeko eta eragiten dieten gaiei buruz hartzen diren erabakietan eragina izateko eskubidea.

Halaber, haurren eta nerabeen parte hartzeko eskubidea bat dator Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako 16. Helburuarekin.. “Bakea, justizia eta erakunde sendoak” izenburupean, gai horrekin lotutako helburu hauek jasotzen ditu:

- ✓ 16.7. helburua: Maila guztietan beharrei erantzuten dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta ordezkagarriak hartzea bermatzea.
- ✓ 16.10. helburua: Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarrizko askatasunak babestea, lege nazionalen eta nazioarteko akordioen arabera.

Maila operatiboagoari dagokionez, haurren eta nerabeen parte hartzeak, helduen parte hartzeak bezala, alderdi desberdinak azpimarra ditzake:

- ✓ Parte hartzearen helburu nagusia herritarrek parte hartzean duten inplikazioa eta esku-hartzea ahalbidetzea denean: Kasu honetan, pertsona kopuru jakin bati erabaki bat hartzeko prozesuan eragina izateko aukera ematean zentratzen da prozesua. Askotariko mekanismoak (kontsultak, deliberazioak...) puntualak edo denboran mugatuagoak izan ohi dira gainerako parte hartzeko moduak baino.
- ✓ Parte hartzearen helburu nagusia garapen kolektiboa eta ingurune sozialarekiko inplikazioa indartzea denean: Kasu honetan, iraupen luzeagoko dinamiken alde egiten da, protagonistek ingurunea hobeto ezagutu ahal izateko, haien errealitatean gehiago inplikatzeko eta pertsonen eta haien errealitateen artean harremanak garatzeko.

Hori kontuan izanda, haurren eta nerabeen parte-hartzearen elementu garrantzitsu batzuk bereiz daitezke:

- ✓ Haurren eta nerabeen eskubide bat da, eta hala jasotzen dute nazioarte, estatu, erkidego eta udalerri mailako akordio eta araudiek. Hortaz, betebeharrak bat da administrazioentzat.
- ✓ Haurren eta nerabeen autonomia sustatu behar du, eta komunitateko kide gisa dituzten eskubideak eta ardurak ezagutzea eta progresiboki gauzatzea bultzatu behar du.
- ✓ Askotariko kolektiboak barne hartu behar ditu, dibertsitateari eta aukera-berdintasunari erantzunez.
- ✓ Komunitatearentzat baliagarriak diren sentsazioa izatea ahalbidetu behar die adingabeei.
- ✓ Ikasketa-prozesu bat da bertan parte hartzen duten pertsonentzat, helduentzat zein adingabeentzat.

Parte hartzeari buruzko teoriak

Parte hartzearen kontzeptua

Parte hartzeaz dihardugunean, hainbat ikuskera aurki ditzakegu ikuspegiaren arabera.

Gida honetan jaso dugun lan-prozesuaren oinarria da herritarren parte-hartzea gobernatzeko modu berri baten barruan ulertzea, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidea aitortu eta sustatzen duena, eta jarduketa publikoen formulazioaren faseetan lankidetzan aritzen dena nolabait. Hala, herritarrek ez dituzte soilik ordezkariak aukeratzen, zeregin aktiboa eta protagonista ere badute eragiten dieten gaietan. Gainera, parte-hartzea ikasketa-prozesua, lan-metodologia eta tresna ere bada. Fokua batean edo bestean jartzeak zehaztuko du prozesuaren sakontasuna eta komunitatean duen eragina.

Haurren parte-hartzea: ikuspegia eta mailak

80ko hamarkadatik aurrera, paradigma-aldaketa bat izan zen eta eragina izan zuen haur eta nerabeen parte-hartzearen ikuspegian. Ordura arte, lehenesten zen ikuspegiaren ezaugarria estilo erabat asistentzialista zen, eta haurrak ezgai zirela uste zuten, garapen kognitiboa falta zitzaielako. Hala, haurrak babestu eta hezi egin behar ziren jarduteko gaitasuna eskura zezaten.

80ko hamarkadan sortu zen ikuspegi berriak aitortzen zuen haur eta nerabeak eskubidedun subjektuak zirela. Hala geratu zen jasota, aurretik ikusi dugun moduan, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (1989).

Egile askok definitu dute haurren parte-hartzea. Crowleyk (1998) bere izaera zibila eta politikoa nabarmentzen du, eta berresten du parte-hartzea helburua dela bere horretan eta ez helburua lortzeko prozesu edo bitartekoa.


Bestalde, García eta Micok (1997) "aurreherritar" kontzeptua erabiltzen dute, eta berresten dute haurrak herritar potentzialak direla arrazoi politikoengatik, psikosozialengatik, filosofikoengatik, moralengatik eta juridikoengatik.

Gaitánek (1998) haurren protagonismoaz dihardu, eta hurrek eta nerabeek haien garapenean eta komunitatearenean rol protagonista izateko prozesu soziala dela definitzen du. Hala, haien eskubideak erabat beteko lirake.

Ziurrenik, haurren parte-hartzearen definiziorik zabalena Roger Hartena da (1992). Berresten du beraien iritzia kontuan izan ditzaten eta beren bizitzan edo komunitatean inpaktua sor dezaten haur eta nerabeek duten adierazteko gaitasuna dela.

Hartek Sherry Arnsteinen “Parte-hartzearen eskailera” lanaren bertsioa argitaratu zuen, haur eta nerabeentzat egokituta. Egile horrek parte-hartzearen kontzeptua prozesu gisa irudikatu zuen eta 8 mailako eskailera marraztu zuen. Hartek haurren errealitatera egokitu zituen mailak.

Eskailera horretan haurren parte-hartzearen 8 mailak ageri dira prozesuetako parte-hartzearen sakontasunaren arabera. Hurrengo paragrafoetan zehaztuko ditugu maila bakoitzaren ezaugarriak.



Lehenengo zatia, parte-hartzerik ezarena, parte-hartze azalekoagoa duten maila horiei dagokie:

1. maila - Manipulazioa: haurrak presente daude prozesuan, baina ez dituzte prozesuaren nondik norakoak ulertzen, ezta haien ekintza propioak ere. Helduen ideia helarazteko erabiltzen dira.

2. maila.- Dekorazioa: haurrek ez dituzte prozesuaren nondik norakoak ezagutzen eta ez dute prozesuaren antolatzaileei edo han helarazten diren ideiei inolako ekarpenik egiteko aukerarik. Auzia zeharka indartzeko erabiltzen dira haurrak.

3. maila .- Partaidetza sinbolikoa: hurrei haien ideiak adierazteko aukera ematen zaie, itxuraz; benetan, ordea, gaiari buruzko eragin txikia dute, edo batere ez, eta haien iritzi propioak adierazteko aukera ere oso txikia edo hutsala da. Horren adibide izango litzateke batzuetan haurrak konferentzietan erabiltzea: adierazteko erraztasuna duen talde bat aukeratzen dute, gaiaren gaineko prestakuntzarik gabea edo prestakuntza gutxikoa, aurretik teorikoki ordezkatzeko dituzten haurren hautaketa parte-hartzailea eta kontsultarik egin gabe.

Bigarren zatiak parte-hartzeari egiten dio erreferentzia eta 5 maila ditu haurren inplikazioaren, erabakitze gaitasunaren, izaera loteslearen edo loteslea ez denaren, erabakien eta prozesuan duten lidergo-paperaren arabera.

4. maila.- Informazioa: kasu honetan, baldintza batzuk bete behar dira:

- Hurrek proiektuaren asmoak ulertzen dituzte.
- Parte-hartzearen gaineko erabakiak nork eta zergatik hartu dituen badakite.
- Zeregin adierazgarria dute (ez dekoratiboa).
- Boluntario gisa aurkezten dira proiekturako, proiektuaren informazio argia izan ostean.

5. maila.- Kontsulta: Hurrek prozesuaren informazioa jaso eta ulertzen dutenean. Gainera, kontsulta egiten zaie eta amaierako erabakiak hartzerakoan haien iritzia kontuan hartzen da.

6. maila.- Helduek hasita, hurrekin partekatutako erabakiak: kasu honetan, prozesua helduek hasten dute, baina erabakiak hurrekin batera hartzen dituzte, harreman parekidean.

7. maila.- Hurrek hasita eta zuzenduta: hurrek proiektu konplexuak sortzen eta martxan jartzen dituzte prozesu honetan, eta haiei eta haien ingurukoei eragiten dieten erabakiak hartzen dituzte. Partaidetza maila honetan ahalduztze giroa behar da, eta, helduen partetik, prozesua bideratzea.

8. maila.- Hurrek hasita, helduekin partekatutako erabakiak: kasu honetan, prozesua hurrek hasten dute, baina erabakiak hartzeko orduan helduek ere parte hartzen dute.



Haur eta nerabeen parte-hartzea Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasotako eskubidea da. Eskubidea gauzatu ahal izateko, haien iritzia sortzeko eta adierazteko informazio nahikoa eta egokia izan behar dute. Ideia eta iritzi horiek aktiboki entzun eta kontuan hartu behar dira.

Parte-hartzearen garrantzia

Parte hartzeak, herritarren eskubidea izanik, gauzatzeko bideak behar ditu. Horregatik, eskubide hori gauzatzeko espazioak, mekanismoak eta organoak artikulatzea erakunde publikoen betebeharra da. Azken

urteotan, paradigma-aldaketa izan da eta gobernantza-eredu inklusiboagoak garatu dira, herritarrek erabaketan modu aktiboan parte hartzeko duten beharra aitortu eta askotariko jakintzen garrantzia azpimarratzen dutenak.

Prozesu parte-hartzaileak abian jartzeak parte hartzeko eskubidea gauzatzeko espazioak eta bideak eskaintzeaz gain, beste helburu batzuk ere barne hartzen ditu:

- ✓ Errealitatea eraldatzea.
- ✓ Pertsonak ahalduntzea eta komunitatea sortzea.
- ✓ Erakundeek eta herritarrek ongizate komunaren alde elkarrekin lan egiteko espazioa sortzea.
- ✓ Etengabeko prozesu pedagogiko bihurtzea, herritarrek, teknikariek eta ordezkari politikoek komunikatzen, eta lankidetzak eta elkarlanerako mekanismoak ezartzen ikas dezaten.

Gobernantza-eredu honek eta horri lotuta dauden aldaketek efektu desiragarriak dituzte, eta prozesu parte-hartzaileak gainditu eta hainbat mailatara zabaltzen dira:

- Maila sozialean, tradizionalki kanpoan geratu diren sektoreak sartu ahal izan dira erabakiak hartzeko prozesura. Gainera, komunitate/talde bateko kide izatearen sentimendua indartu eta ahalduntze sozialari ekarpena egiten dio, biztanleria aktiboa eratzen lagunduz. Herritarrek prozesua haiena sentitzen dute, eta horri esker, inplikazioa eta inpaktua handiagoa eta iraunkorragoa da. “Erakunde-herritar” lankidetzak horrek konfiantza sortzen du eta loturak indartzen laguntzen du.
- Maila politikoan eta kudeaketan dakartzan onurak dira jarduketak efizienteagoak eta eraginkorragoak izatea, herritarren beharrak eta proposamenak jasotzen baitituzte, haiek direlako jarduketa horien amaierako hartzaileak. Hori dela eta, herritarrak erabakiak hartzeko prozesuan txertatzeari esker, legimititatea lortzen da eta askoz gehiago egokitzen dira herritarren interesetara.
- Haur eta nerabeen kasuan, parte-hartzeak onurak dakartza hainbat mailatan:
 - ✓ Ahalduntzen, beren eskubideak aitortzen, aldarrikatzen eta gauzatzen laguntzen die.
 - ✓ Garapen pertsonalari ekarpena egiten dio, dituzten gaitasunen gaineko kontzientzia hartzen eta gaitasun berriak eskuratzen laguntzen dielako. Horrek beren buruarekiko konfiantza sortzen laguntzen die.
 - ✓ Aukera ematen die beren komunitatean eta udalerrriaren errealitatean pertsona aktiboak izateko, eta horiek aldatu eta hobetzeko prozesuetan parte hartzeko. Horri esker, horren parte sentitzen dira eta, ondorioz, kide izatearen zentzu zabalagoa dute.
 - ✓ Beren ikuspegia txertatzeko eta erabakiak hartzeko garaian eragina izateko aukera ematen die. Horrek prozesuen kalitatea hobetzen du.

- ✓ Herritartasun-ariketa da eta balio demokratikoak barneratzen laguntzen die.



Herritarren parte-hartzea errealitatea eraldatzeko, pertsonak ahalduztzeko eta komunitatea sortzeko gai da. Maila politikoan eta kudeaketan, jarduketan efizientzia eta eraginkortasuna areagotu egiten da, eta legitimitate handiagoa ematen die. Haur eta nerabeen kasuan, zehazki, haien eskubideak ezagutzen eta gauzatzen, pertsonalki garatzen, erabakiak hartzekoan eragina izaten eta balio demokratikoak barneratzen laguntzen die.

Parte-hartzearen aurreko beharrezko baldintzak

Prozesu parte-hartzailea abian jartzeko prozesua jorratu aurretik, edozein motatakoa izanik, beharrezkoa da baldintza batzuk betetzea, eragin erabakigarria izango baitu prozesuaren arrakastan.

Lehenik eta behin, beharrezkoa da plangintza. Prozesu parte-hartzaileek eraginkorrak izan daitezen, pentsatuta egon behar dute, nahikoa baliabide izan eta konpromiso politiko sendoaren babesa jaso behar dute.

Bestalde, pertsonek parte hartzeko, oinarrizko hiru gauza eman behar dira:

- ✓ Parte hartu nahi izatea: Prozesu boluntarioa izan behar da eta parte hartzeko motibazioa behar da. Hori pertsonen araberakoa den arren, funtsezkoa da hasierako plangintzan behar duen garrantzia ematea.
- ✓ Nola egin jakitea: Parte hartzeko prestatuta egon behar dute, hain zuzen ere, negoziazioa, eztabaida, enpatia, entzuteko gaitasuna eta abar eskatzen dituzten dinamiketan parte hartzeko. Gainera, ez dugu ahaztu behar prozesuak berak izaera pedagogikoa duela, parte hartuz ikasten baita parte hartzen.
- ✓ Non edo nola gauzatu izatea: Parte hartzeko espazioak, egiturak edo prozesuak egon behar dute.

Gainera, kontu hauek ez dira alde batera utzi behar:

- Kalitatezko parte-hartzea sustatzeko baldintzak bermatu behar dira: informatu egin behar da, erabakietan oinarritutakoa izan behar da, berdintasun-baldintzak bermatu behar dira, helburua emaitzak lortzea izan behar da eta egindako proposamenei itzulpena egin behar zaie.
- Prozesuak testuinguru jakin batean barruan daude eta ezin dira ez errealitatetik isolatu, ez egungo edo aurreko loturak eta/edo egoerak saihestu. Prozesu bakoitza berezia da, baina aurretiazko esperientzien bizipenek marka dezakete.
- Hainbat logika daude eragile-motaren arabera denborei, motibazioei, parte hartzeko moduari, konpromisoari eta abarri dagokienez. Horregatik, garrantzitsua da gauza horiek guztiak zehaztea, prozesuan zehar nahasteak egon ez daitezen.
- Argi izan behar da parte hartzeak modu kolektiboan eta lankidetzan eraikitzea esan nahi duela, eta inola ere ez ordezkari politikoak edo teknikariak ordezkatzeko haien zeregin edo arduretan.
- Anitza izan behar da, eta jorratutako gaiaren inguruan dauden diskurtso eta sentsibiltate guztiak biltzen ahalegindu behar da.
- Malgua eta inklusiboa izan behar da pertsona, kolektibo, ekimen edo parte hartzeko moduekin.
- Argi adierazi eta zehaztu behar dira prozesuaren irismena eta joko-arauak, baita lanaren esparrua eta denborak ere.
- Prozesua eskuragarri dauden baliabideetara egokitu behar da, bai giza baliabideetara, bai ekonomikoetara.
- Garrantzitsua da komunikazio bideak eta kanalak zaintzea, baita elkartzeko lekuak ere. Prozesuaren hartzaile izango den publikora egokitu behar dira, nahi den efektua izan dezaten. Horretarako, gomendagarria da taldearen lehentasunak aurretiaz ezagutzea.

Prozesu parte-hartzaile guztientzat komunak diren aurreko kontuez gain, haur eta nerabeen parte-hartzearen kasuan, komeni da hau presente izatea:

- Haur eta nerabeen ezaugarriak eta haien interes eta beharrak kontuan hartuta planteatu behar da prozesua. Esaterako: arlo horretan duten aurretiazko ezagutza eta esperientzia, teknologien erabilera, kezkak, kontu komunitarioekiko interesa, etab.

- Garrantzitsua da hizkera inklusiboa erabiltzea, haur eta nerabeekin lagunkoia dena, ulermena errazteko eta ulermenetik kanpo geratzen diren teknizismoak edo hizkera instituzionala ekiditeko.
- Beharrezkoa da planteamendu ludiko, dinamiko eta haur eta nerabeentzat erakargarria egitea.
- Proiektua zehaztea oso garrantzitsua da adingabeak ez direlako oso pragmatikoak: oso ondo zehaztu behar dira landu beharreko eremua, denbora eta proiektuen dimentsioa.
- Garrantzitsua da parte-hartze prozesuan zehar promotoreak ohikoa ez den beste plano batean kokatzea, entzute aktiboa izatea eta parte-hartzaileen iritziekiko interesa eta balorazioa izatea.
- Segurtasun-sentimendua garrantzitsua da. Haur eta nerabeek babestuta sentitu behar dute; hortaz, beharrezkoa da lan-giroa eraikitzailea, positiboa eta errespetuzkoa dela eta eroso sentitzen direla bermatzea.
- Haur eta nerabeen lanetik bideratutako proposamen guztiak ez dira bideragarriak izango. Hala ere, beharrezkoa da kontuan izatea eta baloratzea erantzun ahal izateko. Batzuetan, nahikoa izango da eskumena duen erakundeari helaraztea, eta beste batzuetan, horiek birformatuta edo abordatze berritzailearen bitartez negoziatuz konpondu ahal izango dira.

Eragile gakoak

Duela gutxira arte, kudeaketa publikoa ordezkari politikoen eta teknikarien esku zegoen soilik. Herritarrek parte hartzeko prozesuak zabaltzeak esan nahi du eragile berri bat gehitzea, herritarra, eta bere iritziekin eta ekarpenekin, erabakiak hartzeko prozesuan lankidetzan aritzea.

Prozesu parte-hartzaile guztietan, izan helduekin edo haur eta nerabeekin, hainbat eragilek hartzen dute parte eta pisu desberdina dute horietan.

Prozesu parte-hartzailearen arrakasta eragileen arteko sinergiak sustatzen dituzten lankidetzaren dinamikak sortzen jakitearen arabera da hein handi batean.

Antolatu gabe dauden herritarrak: haur eta nerabeak dira prozesuaren protagonistak eta, horregatik, pisu adierazgarria izan behar dute. Familiek zeregin garrantzitsua izan dezakete horrelako prozesuetan parte-hartzera animatzeko eta laguntzerako garaian.

Beren **zeregina** protagonista izan behar da: aztertu, eztabaidatu, informatu, proposatu eta erabaki ahal izateko gaitasunak eskuratu behar dituzte. Gainera, parte-hartzearen emaitzaren berri eman behar zaie.

Erakundeak eta instituzioak ere funtsezkoak dira prozesuan jorratzen den errealitatearen edo gaiaren gaineko ezagutzarengatik. Haur eta nerabeekin lan egiten duten elkarteak, ikastetxeak edo publiko horrekin lotutako beste edozein kolektibo prozesu parte-hartzaileari gehitzeko intereseko eragileak izan daitezke


Beren **zeregina** prozesua hainbat modutan babestea izango da: aholkularia izan daiteke informazioa eskainiz eta/edo kontrastatuz, edo diseinuan edo sozializazioan lagundu.

Ordezkarri politikoak eragile gakoak dira prozesuetan. Kasu gehienetan, prozesu parte-hartzaileak erakunde publikoek sustatzen dituzte eta eragile horiek parte-hartzearekin duten konpromisoa erabakigarria da haur eta nerabeek parte hartzeko organoei eta prozesuei egonkortasuna emateko eta instrumentalizazioa ekiditeko.

Zereginaren oinarria hauetan oinarritzen da: halako ekimen-motak sustatzea, organoak sortzea edo prozesuak zabaltzea, horietatik eratorritako eskari edo proposamenei erantzutea eta aintzat hartzea, eta ahal den neurrian ezartzea.

Udaleko eta kanpoko teknikariak ere presente egon behar dute, eta prozesuari eta bertan parte hartzen duten haur eta nerabeei beren esperientzia eta ezagutza eskaini behar diete. Bestalde, garrantzitsua da parte-hartzea, kolektiboak bere lan-dinamikan txertatzeko duen ikuspegiaren berri izateko balioko dielako.

Zeregina honako hau izango da: prozesua sustatu eta laguntzea, saioak dinamizatzea, familiekin, ikastetxeekin eta elkarteekin komunikazioa izatea eta bertan proposatzen diren ekintzak ezartzeko ardura ere izan dezakete.



Aurretik aipatu dugun moduan, haur eta nerabeen parte-hartze prozesuen kasuan, kontuan izan behar dugu ohitura falta dela eta zaila dela berez prozesu parte-hartzaileekin bat egitea. Horregatik, identifikatutako eragileen lankidetzak gakoak dira prozesuak sozializatzeko eta babesteko.

Bereziki interesgarria da zuzenean hurrekin eta nerabeekin lotutako eragileak izatea:



Ikastetxeak: ikastetxeak aliatu naturalak dira haur eta nerabeen parte-hartze prozesuetan. Lankidetzak funtsezkoa da ikasleen artean prozesua sozializatzeko ez ezik, baita curriculumaren bitartez parte-hartzea zeharka prozesu gisa lantzeko ere.

Kultur taldeak, kirol taldeak eta abar: horrelako prozesu-moten jomugan dauden herritarrak biltzen dituzte eta adingabeen ohituren eta interesen gaineko informazioa emateaz gain, prozesua hedatzen, jendea lortzen eta parte hartzeko motibatzen lagun dezakete.

Aisialdiko eta denbora libreko taldeak: Aisialdiko eta denbora libreko taldeek ezagutza zabala eta haur eta nerabeekin eskarmentu handia dute, metodologia aktiboak, parte-hartzaileak eta bizikidetzakoak oinarri hartuta. Horregatik, interesgarria da prozesuetan sartzea.

Gaztegunak, gaztetxokoak, gaztelekuak, etab.: Ludotekak, lokalak, etab. Antolatutako baliabideak dira, normalean udalak kudeatzen ditu eta haur eta nerabeak bertan elkartzen dira. Parte-hartzean esperientzia duten talde egonkorak aurki ditzakegu bertan.

Parte-hartzea bideratzeko moduak

Haur eta nerabeekin prozesu parte-hartzaileak artikulatzea planteatzen dugunean, zer espaziotan garatuko diren erabaki behar dugu, besteak beste. Cornwallek (2004) “gonbidatutako espazioak” eta “espazio herrikoiak” bereizten ditu. Lehenengoan, haur eta nerabea ez den eragile batek kontrolatzen du eta parte

hartzera gonbidatzen ditu. Bigarrenean, haur eta nerabeek beraiek sortzen dute espazioa eta hartzen dute kontrola. Saillapen horri jarraituz, parte hartzeko antolatzen diren haur eta nerabeen sareak aurki ditzakegu, eta, hala, kontuan hartuak izateko duten eskubidea aldarrikatzen dute.

Hala ere, ohikoena da parte-hartzea espazio nahiko instituzionaletan bideratzea. Puntu honetan hainbat aukera daude:

- Haur eta nerabeak dagoeneko badauden helduen espazioetan edo prozesu parte-hartzaileetan sartzea, dinamikak egokituz partaide berrietara egokitzeko. Hori izan daiteke aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren kasua, proposamenak egiteko eta ondoren bozkatzeko garaian haur eta nerabeak gehitzen baitira.
- Prozesu parte-hartzaile puntualak sortzea hainbat gai jorratzeko. Kasu hauetan, prozesu bat hasten da haur eta/edo nerabeekin, eta, helburuak bete eta gero, prozesurako sortutako egitura desagertu egiten da. Horren adibide izan daitezke haur eta nerabeak programen diseinuan, hiriko mugikortasunean edo azpiegituretan (parkeak...) gehitzeko prozesuak.
- Haur eta nerabeek parte hartzeko organo edo espazio egonkorrak sortzea. Hori da haurren batzordeen kasua. Aldizka batzen dira hainbat gai jorratzeko eta osaera eta funtzionamendua arautzen duten arau batzuk dituzte. Halaber, badaude beste espazio egonkor batzuk, esaterako, ikastetxeetako Agenda 21 edo Agenda 30.
- Eskola-eremuaren barruan parte hartzeko espazioak, esaterako, ikasleen batzordeak edo beste organo/espazio mota batzuk, ikasleek ikastetxearekin lotutako gaiak jorratzen dituztenak.

NOLA DISEINATU ETA JAR DAITEKE ABIAN HAUR ETA NERABEEK PARTE HARTZEKO ORGANOAK?

Diseinatzeko prozesua hasi aurretik aintzat hartzeko puntu batzuk

Organoa diseinatzeko hasi aurretik, haurrek parte hartzeko organoen ezaugarri eta baldintza batzuk presente izatea komeni da.

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, haur eta nerabeek haiei eragiten dieten udal-politikak egiteko prozesuan parte-hartze aktiboa izateko mekanismoak gehitzea oso gomendagarria da. Alde batetik, horrek eraginkortasunari, errealitateari egokitzeko gaitasunari eta horien legimitateari eragiten diolako, eta, bestetik, haur eta nerabeak ahalduntzen dituelako, eta haien pentsamendu kritikoa, autonomia eta gaitasun sozialak sustatzen dituelako.

Organoaren forma eta ezaugarriak gorabehera, haur eta nerabeen parte-hartzeak ezaugarri jakin batzuk izan behar ditu eraldatzeko gai diren espazioak eta/edo prozesuak bermatzeko:

- ✓ Informatua izan behar da: aurretik azaldu dugun moduan, informaziorako sarbidea oinarritzkoa da ondo osatutako iritzia izateko. Horregatik, beharrezkoa da haur eta nerabeek beharrezko informazioa izatea prozesuaren hasieratik (jorratu beharreko gaiari buruz, prozesuaren arauari buruz, irismenari buruz...). Horrek gaizkiulertuak eta aurreikuspenak ez betetzeagatik sortutako balizko frustrazioak saihestuko ditu.
- ✓ Boluntarioa izan behar da.
- ✓ Kolektibo hartzaileari egokিতuta egon behar du eta kolektibo parte-hartzailearen ezaugarrien eta beharren arabera diseinatu behar dira espazioak, arauak, metodologiak eta dinamikak.
- ✓ Denboran zehar jarraipena izan behar du.
- ✓ Ebaluagarria izan behar du.

Bestalde, parte hartzeko organoen bitartez bideratzen diren prozesu parte-hartzaileak elkartzeko, informatzeko, ideiak trukatzeko eta eraikuntza kolektiborako espazioak izan behar dira, tokiko administrazioek legimitatu behar dituzte eta udalerriko politikan eragiteko gaitasuna izan behar dute.

Hori dela eta, haur eta nerabeekin lan egitean gauza garrantzitsu batzuk kontuan izan behar dira:



- Haurrak prozesuarekin identifikatzea.

Parte-hartzeak boluntarioa izan behar du eta prozesuan parte har dezaten motibatzeko modurik onenena haurrak identifikatuta sentitzea eta inplikazioa lortzeko haiena sentitzea da.

- Parte-hartzearen eragina eta irismena

Oso garrantzitsua da joko-arauak hasieratik ezartzea eta prozesuaren irismena eta bere eraginak zein izango diren azaltzea: kontsulta-prozesua izango da, loteslea... Hala, aurreikuspen faltsuak sor daitezten ekiditea eta haurrek haien parte-hartzearen irismen erreala hautematea lortuko dugu.

- Prozesuaren diseinua

Prozesu parte-hartzaileek biziak, malguak eta une bakoitzeko beharretara egokitzeko gai direnak izan behar dute. Haurren parte-hartzearen kasuan gomendagarria da erritmoak zaintzea eta prozesuen iraupena eta espero diren emaitzak mugatzea.

- Ahalduntzea

Parte-hartzeak prozesu pedagogiko gisa ulertuta duen helburuetako bat da haurren ahalduntzeari ekarpena egitea eta eraginkortasun politikoaren sentimendua hobetzea. Haurrek haien iritzia garrantzitsua dela sentitu behar dute, entzuten dituztela eta kontuan hartzen dituztela, baita eragiteko eta gauzak aldatzeko gaitasuna dutela ere.

- Metodologia

Akatsik ohikoenetakoa da haurrekin prozesu eta dinamika “helduak” erreproduzitzea. Prozesu bakoitza bakarra da eta garatuko den testuingurua kontuan hartuz diseinatu behar da. Horregatik, garrantzitsua da prozesuak haurren ikuspegitik pentsatzea, hizkera, dinamikak eta espazioak egokitzea, eta, era berean, lan egiteko ingurune eta giro positiboa, errespetuzkoa, integratzailea eta eraikitzailea sustatzea, parte hartzeko eroso senti daitezen.

- Malgutasuna.

Aurretik aipatu dugu garrantzitsua dela prozesuak malguak izatea aldaketetara egokitzeko, eta hori erakundeek haurren proposamenak biltzeko eta jorratzeko duten moduan ere aplikatzen da. Jakina, ezingo dira eskari guztiak artatu hainbat arrazoiengatik (legezkoak, eskumenekoak, aurrekontukoak...), baina beharrezkoa da malgutasunez jokatzeko, proposamena jorratzea eragozten duten arrazoiak azaltzea eta irtenbide alternatiboak negoziatzen ahalegintzea.

Haur eta nerabeek parte hartzeko organoa diseinatzeko eta abian jartzeko prozesuaren faseak



1. fasea. Erakundeen konpromisoa, diagnostikoa eta talde eragilea sortzea

Lehen fase honetan, parte-hartze organoa diseinatzeko beharrezko oinarriak ezartzen dira. Horretarako, beharrezkoa da haur eta nerabeen parte-hartzearekin konpromiso sendoa izatea, talde eragilea eratzea, eragileak eta erakunde laguntzaileak identifikatzea eta udalerriko errealitate soziala ezagutzea.

Nola lor daiteke aurretiazko konpromiso instituzionala?

Udaleko organo parte-hartzaileak abian jartzearen bideragarritasuna bermatzeko, beharrezkoa da erakundeen apustua eta inplikazioa, maila politikoan eta teknikoan sustatzeko ekimena nondik sortu den gorabehera (bai tokiko erakundetik, bai beste elkarte- edo erakunde-mota batetik).

Konpromiso hori esplizitu egiteak (udalbatzan esaterako) ekarpena egiten du organoaren existentzia bermatzeko, erakundearen egon daitezkeen aldaketak edozein izanik ere. Halaber, interesgarria da haur eta

nerabeek parte hartzeko organoak sortzeko konpromisoa berretsi ondoren, konpromiso politikoa ikusgarri egitea haur eta nerabeak dauden komunikaziorako bideetan, udal-sareetan, panel herrikoietan, argi-paneletan edo udalerrri, herri edo auzo bakoitzak izan ditzakeen bestelako baliabideetan.

Nork osatzen du talde eragilea?

Talde eragilea da organo parte-hartzailea diseinatzeko prozesua gidatzeaz arduratuko den lantaldea, baita udalerrian sozializatzeaz ere. Osaera aldatu egiten da udalerrri batzuetatik besteetara, baina oro har hau barne hartzen da:

- ✓ Politikariak: parte-hartze saila esleitzen zaion zinegotzia presente egon ohi da, baita haur eta nerabeekin harremana duten beste sailtako zinegotziak ere (hezkuntza, ongizate soziala, gazteria...).
- ✓ Teknikariak: udaleko teknikaria ere lan-taldean dago eta errealitateari buruzko eskaintzen du. Aurreko kasuan bezala, haur eta nerabeekin harremana duten sailtako ordezkariak izan ohi dira. Halaber, udaleko zerbitzuetako langileek ere parte har dezakete, esaterako, ludoteketakoek, gaztelekukoek...
- ✓ Ikastetxeetako ordezkariak: batzuetan, udalerriko ikastetxeetako ordezkari bat ere gonbidatzen dute parte hartzera.
- ✓ Haur eta nerabeekin lotutako elkarteetako edo kolektiboetako ordezkariak.
- ✓ Bere esperientzia eta ezagutzarengatik taldeko lana aberastu dezakeen edo organoaren ondorengo sozializaziorako funtsezkoa izan daitekeen beste edozein pertsona edo erakunde.



Talde eragilea eratzen laguntzeko, fitxa bat duzu “Tresnen kutxa” atalean.



- Durangok Tokiko Agenda 21eko arduradun teknikaria sartu zuen talde eragilean.
- Bestalde, Ataunen, herritarren parte-hartze zerbitzuko animatzailea sartzeaz gain, gurasoen elkarteko ordezkari bat gonbidatu zuten.
- Legutión eta Amurrión ere ikastetxeetako ordezkarien parte-hartzea izan zuten, baita Lemoan ere.
- Guardian ikastetxeetako ordezkarien gain, kaleko hezitzaileen taldeak eta gazte zentroko eta ludotekako monitoreek ere bat egin zuten.
- Laudión berdintasun-teknikaria ere sartu zen eta parte-hartzea beste sail batzuetara zabaltzea erabaki zuen, jorratu beharreko gaiaren arabera.
- Bestalde, Gornizet erabaki zuen udaleko arkitektoa talde eragilearen parte izan zedin gonbidatzea.
- Donostiako talde eragilearen barruan Gazteria, Hezkuntza eta Giza Eskubideen sailtako ordezkariak zeuden.

Nola identifikatu daitezke aliantza gakoak?

Haur eta nerabeek parte hartzeko tokiko organoa sortzeko prozesuari atxikitzearen gainean erakundeek duten konpromisoa formalizatu ostean, eta talde eragilea eratu ondoren, gomendagarria da aliantza gakoak identifikatzea.

Aliantza horiek erakundeak, elkarteak, taldeak, baliabideak edo pertsonak izan daitezke maila indibidualean, eta bai parte-hartzean oro har, bai haur eta nerabeen parte-hartzean duten ibilbideagatik eta esperientziagatik organo horiek abian jartzeko eta funtzionatzeko oso beharrezkoak diren kontraste-lanak eta lankidetzak egin ditzakete. Hasieran aliantzen mapa zabala izan daitekeen arren, baliteke organoan parte hartzen duten pertsonen adina mugatu ostean, eragile gakoak berriro hautatu behar izatea. Diseinuaren prozesuan aurrera egin ahala, beharrezkoa izango da bakoitzaren zeregina eta lan-estrategia bateratua berriro definitzea.

Pertsona eta erakunde gakoak identifikatu ondoren, komeni da bakoitza aztertzea, honako hau kontuan hartuz:

- Egiten duen jarduera eta haur eta nerabeekin duen harremana.
- Irismena: lan egiten duen haur eta nerabeen kopurua, profila, sexua eta adina.
- Eragile horrekin dagoen harremana.
- Eragileak prozesuan duen garrantzia estrategikoa.
- Txertatzeko balizko onurak.

Aliantzen mapa osatuta, eragileekin harremanetan jarri behar da prozesuarekin bat egin dezaten gonbidatzeko. Garrantzitsua da halaber talde horrek izango duen funtsezko zeregina helaraztea, bai organoaren eta prozesuaren diseinuan, bai aurrerago sozializazioan, kontrastean eta hedapenean.

Aliantzen maparen adibidea

Nombre de la entidad	¿A qué actividad se dedica?, ¿qué hace en relación con las NNA?	Número y perfil de NNA con los que trabaja	¿Qué relación tenemos con este agente?	¿Puede ser clave para desarrollar este proyecto?	¿Por qué?	¿Qué puede aportar a este proyecto?
Centros educativos	Educación formal	Niñas y niños de Educación Primaria	Cercana, colaboran en las actividades propuestas por el Ayuntamiento y éste les apoya en sus iniciativas	Sí, es necesaria su colaboración para difundir el proyecto y ponerlo en marcha	El público al que se dirige el proyecto acude a estos centros	Experiencia, cercanía con las niñas y niños
Ludoteca	Actividades para niñas y niños	Niñas y niños de 8 a 12 años	Es un servicio municipal	Si	Puede ayudar a dar a conocer el proyecto	Experiencia, relación directa con las niñas y niños
Asociación de tiempo libre	Actividades de tiempo libre	Niñas, niños y adolescentes de entre 8 y 16 años	Cercana, colaboración de	Si	Pueden apoyar el proyecto	Experiencia, relación directa con las niñas y niños
AMPAS	Asociaciones de madres y padres de los centros escolares	Niñas y niños de Educación Primaria	Buena	Si	Para que el proyecto tenga éxito es imprescindible contar con la complicidad de las familias	Relación directa con las niñas y niños



Aliantzen maparekin laguntzeko, fitxa bat aurkituko duzu “Tresnen kutxa” atalean.



- Proiektuan parte hartu duten 18 udalerriek bat egin dute beren aliantzen mapan interesgarri gisa identifikatu dituzten eragile askorekin.
- Guraso-elkarteak, ludotekak, haurtxokoak eta gaztelekuak, haur eta/edo nerabeekin lan egiten duten udalerriko elkarteak, denbora libreko taldeak, dantza-taldeak, kirol-taldeak... Haur eta nerabeak biltzen dituzten erakundeak eta taldeak presente daude udalerri guztietako aliantzen mapetan, tamaina edozein izanik ere.
- Udalerrri batzuetan, Portugaleten esaterako, harreman zuzena eta ohikoa dago ikastetxeekin egiten dituzten bileren bitartez, eta horrek proiektuan inplikatzeko laguntzen du.
- Kasu batzuetan, UNICEF, Save the Children edo Medicus Mundi gisako erakundeak ere barne hartu dituzte.

Nola egin daiteke tokiko errealitatearen diagnostikoa?

Organo parte-hartzailea diseinatu ahal izateko, lehenik haur eta nerabeei zuzenean eragiten dien udalerriko errealitate soziala aztertu behar da, diagnostikoaren bitartez.

Organo parte-hartzaileek beste udalerri batzuen antzeko konfigurazio- eta garapen-ildoak jarraitu ditzakete, baina inoiz ezingo dituzte beste udalerri batzuetako esperientziak zuzenean kopia. Errealitate jakin batera eta kolektibo bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea ezinbesteko ezaugarriak dira proiektuek arrakasta eta iraupena izan dezaten.

Diagnostikoak alderdi jakin batzuk bildu behar ditu, eta horiek aztertzeak haur eta nerabeen aurretiazko jakintzan sakontzen lagunduko du. Hori egiteak eta lortutako datuek kolektibo hartzailearen argazki osoa emango digute. Gainera, organoa diseinatzeko garaian kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak argitzen lagunduko du.

Datuok jasotzea komeni da:

- Udalerriko biztanleria osoa eta 0 eta 17 urte bitartekoa. Datuok sexuaren eta adin-tarte edo taldearen arabera bereiztea komeni da (esaterako, eta “Tresnen Kutxa” atalean gehitutako adibideari jarraituz: 0-2 urte, 3-5 urte, 6-12 urte eta 13-17 urte).
- Organo parte-hartzaileko sustatzaileentzat nabarmentzea garrantzitsuak diren udalerriko haur eta nerabeen alderdi sozialak edo soziodemografikoak: haur edo nerabeen kolektibo jakin batzuen presentzia nabarmena, profil linguistikoak...
- Kontuan izan beharreko errealitate geografikoa: biztanleria nukleo bakarra edo hainbat izatea, haur eta nerabeen biztanleria nukleo batean pilatzea, hainbatetan edo lurraldean zehar sakabanatuta, auzo edo nukleoen arteko komunikazioa, etab.
- Haur eta nerabeen ikuspegitik kontuan hartu behar diren tokiko jarduera edo ekitaldi kolektibo garrantzitsuak: jaiak, jardunaldiak, ekitaldiak, jaialdiak, etab.

- Tokiko haur edo nerabeek erabiltzen dituzten ekipamendu komunitarioak edo elkartzeko espazioak.
- Udalerrian aurretik zeuden parte hartzeko esperientziak. Asko badira, nabarmenenak adierazi.
- Jasotzea beharrezkoa den beste kontu interesgarri batzuk, esaterako:
 - Bigarren mailako iturriak, hala nola aurretiazko azterketak, webguneak...
 - Beste eragile gako batzuk, hala nola irakasleak, guraso-elkarteak...



Xede-datuetatik harago, diagnostikoa aukera bat izan daiteke eta une egokia udalerriko haur eta nerabeek errealitatea nola bizi duten kontsultatzeko, kontrastatzeko eta entzuteko. Horregatik, gomendagarria da diagnostiko-prozesuan sartzea. Hainbat modutara egin daiteke, lortu nahi den sakontasunaren arabera. Haur eta nerabeei eragiten dieten gaiei buruzko galdetegia egitea (hezkuntza, aisialdia, segurtasuna) edo eztabaida-taldeetan jorratzea izan daitezke diagnostiko-prozesuan parte hartzeko tresna egokien bi adibide.



Diagnostikoarekin laguntzeko, “Tresna kutxa” atalean fitxa bat dago.

2. fasea. Organo parte-hartzailearen diseinua

Lantaldea edo talde eragilea eratu ostean, organoa diseinatzeko garaia da. Horretarako, aurreko fasean egindako diagnostikoa kontuan izan behar da beti, organoa inguruko errealitate sozialera egokitu dadin bermatzeko. Esaterako, ez luke zentzurik izango jorratu ezin dituen funtzioak esleitzeak edo bilerak hamabost egunean behin egiteak, ez badugu horiek dinamizatzeko baliabiderik.

Diseinuan sakondu aurretik, honako hau gogoan izan behar dugu:

- ✓ Tokiko gobernuaren esparruan haur eta nerabeek parte-hartze aktiboa izateko espazio espezifikoak dira organo horiek.
- ✓ Udal-politikak diseinatzeko haur, nerabe eta helduen arteko lankidetza aktiborako mekanismoak eskaintzen ditu.
- ✓ Udalerrri jakin bateko haur eta nerabe guztiek parte hartzeko organoak izango dira eta kontsulta-izaera, iraunkorra eta egonkorra izango dute, udalerrrian eragiten dieten gaien gaineko ideiak adierazi eta proposatu ahal izateko.
- ✓ Udalerrriko haur eta nerabe guztiak modu orekatuan ordezkatu behar dituzte eta errealitate guztiei erantzun, dibertsitate funtzionala duten adingabeak, immigranteak edo gutxiengoak izan daitezkeen beste kolektibo batzuk ahaztu gabe.
- ✓ Ezartzeko prozesua progresiboa izango den arren, haur eta nerabeen interesei erantzun beharko die beti, eta efektu biderkatzailea izan beharko dute, adingabeen familiak kontuan hartu beharko baitira.

HNPOk zer funtzio gauzatu ditzake?

Lehenik eta behin, organoa abian jartzera bultzatzen gaituen motibazioa zein den pentsatu behar dugu, eta, horren arabera erabaki zer funtzio esleitu.

Jarraian, organo parte-hartzaileei esleitutako hainbat funtzio aurkeztuko ditugu:

- Herriko haurren eta tokiko autoritateen arteko komunikazioa bideratzea. Kasu honetan, haur guztien ordezkaritza-organoa da, eta haurren iritzia, beharrak eta kezkak udalari helaraztea da haren zeregina, baita alderantziz ere.
- Erabakiak hartzeko eta udalerrriko gainerako organoekin kontsultatzeko egitura da, eta gehienbat helduek osatzen dute (udaleko sailak, koordinazio-espazioak...).
- Udalerrri mailan haurren ongizatea eta eskubideen garapena bermatzeko neurri egokiak proposatzea udal-gobernuari, udalerrriko haur zaurgarrienei arreta berezia jarrita.
- Martxan jartzen diren Haurtzaroko Planen prestaketan eta jarraipenean parte hartzea, haurren beharrak horietan isla daitezen.
- Herritar arduratsuentzako eskumenak garatzea sustatzen duen espazioa da, jarduketa praktikoen eta esperimentazioaren bitartez. Balio batzuk sustatzea da helburua, hala nola parte-hartzea, lankidetza, talde-lana, aniztasunaren aitortza, adostasunak lortzeko negoziazioa...

Nork osatzen du organoa?

Alderdi gakoetako bat organoaren konposizioa izango da, hau da, nork osatuko duen, zenbat haur eta nerabe izango diren eta zer perfil izango duten zehaztea.

Oro har, honakoa esan daiteke:

- ✓ Haur eta nerabeek parte hartzeko organoen (aurrerantzean, HNPO) funtsezko nukleoa haur eta nerabeek osatzen dute (protagonistak izan beharko dute), eta helduek ere parte har dezakete bertan. Adingabeen kopuruak helduena baino altuagoa izan behar du beti, organoaren izaera ez indargabetzeko.
- ✓ Profil teknikoez gain, profil politikorik ohikoenak alkatea eta/edo parte-hartzearekin edo adingabeen jarduketekin lotutako zinegotziak izan ohi dira.
- ✓ HNPOko kideen kopurua aldatu egin daiteke (4 eta 60 kide bitartekoak daude) eta ez du zertan udalerriko biztanleriaren kopuruarekin loturarik izan behar. Kontuan izan beharko da kopuru hori kudeatzeko gaitasun teknikoa eta, hortaz, horretarako dauden giza baliabideak. Lehen aldiz horrelako organo-motak abian jartzen dituzten udalerrietan gomendagarria da pixkanaka ezartzea, eta adingabeen kopuru txiki batekin hastea.
- ✓ Kide adingabeen adin-tartea 6 eta 16 urte bitartekoa izan ohi da.
- ✓ Haurrek parte hartzeko organoaren osaeran parekidetasuna sustatzeko, komeni da honako hau sustatzea:
 1. Haurren osaera orekatua ikastetxearen, auzoaren edo barrutiaren arabera
 2. Genero bakoitzeko ordezkarien proportzioa orekatuta egotea.
 3. Behar bereziak dituzten, zaurgarritasun-egoeran dauden, edo beste nazionalitate batzuk dituzten haur eta nerabeen ordezkaritza kontuan hartzea, besteak beste.



Haur eta nerabeak izan behar dira protagonista organo parte-hartzaileetan. Horregatik, helduen zeregina honetara mugatzen da:

- Koordinazio- eta logistika-zereginak.
- Prozesua erraztu eta dinamizatu
- Informazioa eta laguntza teknikoa eskaini



- Legutiok eta Zumaia Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleak gonbidatu zituzten parte hartzera.
- Urretxun, berriz, nerabeek parte hartzeko organoa sortzea erabaki zuten, 14-15 urteko parte-hartzaileekin.
- Eibarren bi organo sortzeko hautua egin zuten: haurren batzordea, 5 eta 6. mailako parte-hartzaileekin; eta nerabeen batzordea, DBHko 1., 2. eta 3. mailako parte-hartzaileekin. Durangok ere bi organo eratu zituen: bat 5. eta 6. mailako haurrekin eta beste bat 3. DBHko gazteekin.
- Halaber, Zaldibiak bi organo desberdin eratzea erabaki zuen, baina haurren organoko adin-tartea zabaldu egin zuen eta 1. mailatik 6. mailara bitarteko haurrak hartu zituen.

Nola aukeratu eta berritzen dira kideak?

Erakartzeko espazioak

Oro har, 3 espazio-motatan jardun ohi da:

- Ikastetxeak: ikastetxeen laguntza izanez gero, ohikoena da organoko kideak gelan hautatzea. Ikastetxeko irakasleak arduratu daitezke hautaketa-saioaren dinamizazioaz edo talde dinamizatzailerak bera izan saioaren gidari.
- Haur edo nerabeen aisialdirako espazio egonkorak: batzuetan, parte hartzeko organoak ludotekekin, gazteguneekin edo antzeko espazioekin lotzen dira. Haur eta/edo nerabe asko elkartzen dira espazio horietan, eta oso egokiak dira hautaketa-prozesua egiteko.
- Udalerria: halaber, haur eta nerabeei zuzenean egin dakieke deialdia, ikastetxeen edo beste espazio batzuen laguntzarik gabe. Batzuetan udalerriko haur eta/edo nerabeentzako deialdi irekiak egiten dira, eta organo parte-hartzailearen bileretara deitzen zaie. Ondo funtzionatu dezakeen sistema den arren, egia da normalean zailagoa dela haur eta nerabeengana iristea eta soilik motibatuenak edo inplikaturik daudenak joan ohi direla. Hala egitea erabakiz gero, garrantzitsua da komunikazio-kanpaina ona diseinatzea, haur eta nerabeek proiektua hobeto ezagutu dezaten eta bertan nola parte hartu jakin dezaten.



- Proiektuko udalerrri gehienek hautatu zuten ikastetxeekin lankidetzan aritzea kideak erakarri eta hautatzeko.
- Beste batzuetan, Donostian esaterako, Haurtxokoak eta Gaztelekuak gehitu zituzten haur eta nerabeak erakartzeko espazio gisa eta kasu batzuetan, adibidez Amurrian, deialdi irekiak egitea erabaki zuten.

Hautatzeko eta berritzeko sistemak

Organoaren funtzioak eta osaera erabaki ostean, kideak hautatzeko eta berritzeko metodoaren gaineko gogoeta egin behar da.

Haur eta nerabeen ordezkariak demokratikoki hautatu behar dituzte beraien berdinekin, eta ez dituzte inolaz ere helduek esleitu behar. Halaber, gogoratu behar dugu haurren parte-hartzeak borondatezkoa izan behar duela.

Hautatzeko eta berritzeko modua haur eta nerabeek parte hartzeko hautatu ditugun espazioek baldintzatuko dute.

Hala, ikastetxeekin eta/edo haur edo nerabeen beste espazio egonkor batzuekin lotuta dauden organo horien kasuan, hautaketa honela egin daiteke:

- Hauteskundeak bitartez. Hautagai boluntarioak aurkeztuko dira bertara.
- Boluntario aurkeztu diren haur eta nerabeen arteko zozketa bitartez.
- Kolektibo guztiei parte hartzeko egindako deialdi irekiarekin.

Hautaketa udalerri mailan egiten baldin bada, normalean haur eta nerabe guztientzako deialdi irekia egiten da. Aukera horren eragozpena da parekidetasuna, eremu/barruti guztien ordezkariak edo kolektibo guztiena bermatzea oztopatzen duela.

Bestalde, gomendagarria da ordezkariak ere titularren prozedura berarekin hautatzea. Kideren batek baja emanez gero, ordezkariak eskubide eta betebeharrak berdinak izango dituzte organoarekin.

Kideak bi edo lau aldiz berritu ohi dira normalean, edo borondatezko bajak daudenean. Hala, bermatu egiten da HNPOn parte hartzen duten haurrek ziklo osoa betetzea eta organoan beren lanaren emaitza ikusteko adina denbora ematea.

Bi urteko berritzeen kasuan, udalerri ugari arautzen dute berritze partzialak izatea, hau da, haurren ordezkariak ehuneko batek gutxienez beste bi urtez jarraitzea, horrela lortutako lan-dinamikarekin jarraitu daiteke.



